



# Generoarekiko sentiberak diren parlamentuak eta gobernantza feminista



**Uzt. 16 - Uzt. 17 2026**

**Kod. D14-26**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 16 - Uzt. 17 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



# Azalpena

Eusko Legebiltzarraren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Uda Ikastaro honek helburu du parlamentuetan genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzeko tresnak, esperientziak eta erronkak aztertzea, gobernantza feministaren ikuspegitik. Bi jardunaldietan, generoarekiko sentiberak diren parlamentuak eraikitzeke nazioarteko marko kontzeptuala, adierazleak eta ibilbideak landuko dira; gobernantza feministaren oinarriak eta egungo erronkak eztabaidatuko dira; eta esperientzia konparatuak aurkeztuko dira, besteak beste, Suediako edo Belgikako parlamentuenak, Gorte Nagusienak eta Kataluniako Parlamentuarena, Eusko Legebiltzarraren diagnostiko-azterlanaren metodologiarekin batera. Era berean, Euskal Herriko feminismo instituzionalaren ekarpenak jorratuko dira, eta amaitzeko, Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioen ikuspegia bilduko da. Ikastaroak, gainera, hizlarien eta parte-hartzaileen arteko elkarrizketa sustatuko du Mintzodromoaren bidez, eta itxiera sortzaile batekin amaituko da.

## Helburuak

Kontzeptu-esparrua ezartzea: generoarekiko sentiberak diren parlamentuen nazioarteko marko kontzeptuala aztertzea, haiek eraikitzeke adierazleak, tresnak, ibilbideak eta esperientziak kontuan hartuta.

Gobernantza feminista aztertzea: gobernantza feministaren oinarriak eta egungo parlamentuek arlo horretan dituzten erronkak eztabaidatzea, berdintasun-politika publikoetako adituen ekarpenekin.

Metodologiak eta esperientzia konparatuak aurkeztea: Eusko Legebiltzarraren genero-sentiberatasunari buruzko diagnostiko-azterlanaren metodologia aurkeztea eta beste parlamentu batzuetako esperientziekin kontrastatzea.

Euskal Herriko feminismo instituzionalaren ekarpenak jorratzea: erakundeen gobernantzari lotutako aldarrikapen, ikuspegi eta proposamen feministak aztertzea

Ikuspegi politikoa biltzea: Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei ahotsa ematea, parlamentu sentiberen erronkari buruz beren ikuspegitik eztabaidatzeko.

Elkarrizketa sustatzea: hizlarien eta parte-hartzaileen arteko trukea eta elkarrizketa informala erraztea, bereziki Mintzodromoaren bidez.

## Lankidetzak



## Zuzendaritza



### **Zelai Nikolas Ezkurdia**

Eusko Legebiltzarra

---

Zuzenbidean lizentziatu zen 1992an, Deustuko Unibertsitatean. Bere abokatu jarduera urte hartan hasi eta 1997-2018 bitartean Eusko Jaurlaritzan, aholkulari juridiko lanak egin zituen. Gaur egun Eusko Legebiltzarreko legelaria da zerbitzu-eginkizunetan. Eraikuntza zuzenbideko Gradu ondokoa egin zuen 1993an Deustuko Unibertsitatean. Ondoren, 2010ean, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Europar Batasunaren integrazio politiko eta batasun ekonomikoari buruzko masterra burutu zuen, Europako estaturik gabeko nazioen biziraupena eta Europako eskualde politika izeneko tesina idatziz. Horretaz gain, irakaskuntza jarduerak eta jarduera zientifikoak egin ditu EHUn eta zenbait herri ekimenetan parte hartu du.

# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2026-07-16 ARTE</b>
Orokorra	87,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	74,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	61,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	74,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	74,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	74,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	74,00 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2026-07-16 ARTE</b>
Orokorra	87,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	74,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	61,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	74,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	74,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	74,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	74,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa